

# **DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA. PROGRAMA: "ELKARTASUN BEKAK". EKITALDIA: 2016.**

## **Aurrena: Helburua.**

Deialdi honek, nazioarteko elkartasuna Eibarko gazteen artean sustatu dadin, lankidetzako beka bi –Elkartasun Bekak- ematea du helburu.

Diruz lagunduko diren programen baldintzak.

- a) Lankidetzak GKEren baten bitartez garatzen ari diren proiektuetan edo martxan ipiniko direnetan egin beharko da.
- b) Helmugako herrialdean egoteko gutxieneko denbora hile bikoa da.
- c) Udalak bere gain hartzen duen gauza bakarra beka emateko ardura da. Bekaduna bera izango da bere joan-etorriak egiteko eta bere lana gauzatzeko egin behar dituen gainerako gauza guztien ardura hartuko duena.

## **Bigarrena: Araudi erregulatzailerak.**

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak emateko araubidea hauxe da:

- a) Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzetarako lege orokorra.
- b) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- c) Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorra.
- d) Deialdi honen Oinarriak, Udalbatzak, 2015eko uztailaren 23an egindako bilkuran onartu zituen eta 2015eko irailaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- e) Deialdi honetan dauden klausulak.

## **Hirugarrena: Diru-laguntzen zenbatekoa eta aurrekontu-kredituak.**

Diru-laguntza hauek emateko, udal aurrekontuaren zenbateko hau(ek) erabiliko (da) dira:

Diruz lagundutako jarduerak: ELKARTASUN BEKAK. 2016.

Partida: 1.0500.480.01.230.20

Zenbatekoa: 3.000 €

## **Laugarrena: Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Ondoko gastu hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastu bakarrak:

- a) Joan-etorrietarako gastuak.
- b) Istripu eta gaixotasun poliza bat egiteko gastuak.
- c) Helmugako herrialdean ostatu, mantenu eta lekualdatzeetan izandako gastuak.

Laguntza hauek ez dira bateragarriak beste administrazio edo erakunde batzuek helburu berbererako eman ditzaketenekin.

## **Bosgarrena: Diru-laguntza emateko araubidea.**

Diru-laguntzak norgehiagokaren araubidez emango dira.

## **Seigarrena: diru-laguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak.**

Diru-laguntza hauek jaso ditzaketen pertsona fisikoak ondoko baldintza hauek betetzen dituztenak dira, baldin eta DLoren 13 artikuluan ezartzen diren debeku horietako baten ere sartuta ez badaude:

- a) Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean 20tik 40 urte bitartera edukitzea.
- b) Deialdia Gipuzkoako Buletin Ofizialean deialdia argitaratu aurretik hiru urte eramatea Eibarren erroldatuta.
- c) Orain aurkeztu den proiektu honetarako beste erakunde edo elkarteren batek honen antzeko beste beka baten onuradun ez izatea.

## **Zazpigarrena: Organo eskudunak prozeduraren instrukziorako eta ebazpenerako.**

Udalak, diru-laguntza kudeatzeko, hitzarmen bat egingo du erakunde laguntzaile batekin.

Erakunde laguntzaile hori izango da, deialdi honen hamabigarren klausulan adierazitako irizpide horien arabera, jasotako proposamenak baloratuko dituena; eta, gero, ondoko atal hauek jasoko dituen txosten bat egingo du:

- a) {0}<>96{>Prozesuan onartu eta baztertu diren eskaeren zerrenda; baztertutakoak, diru-laguntza jasotzeko bete behar diren baldintza guztiak ez betetzeagatik.
- b) {0}<>95{>Aurkeztu diren eskaeren ebaluazio-proposamena.
- c) {0}<>91{>Prozesutik baztertu ez diren diru-laguntza eskaerei emandako puntuazioak.
- d) {0}<>95{> Diru-laguntza emateko proposatzen diren eskaeren zerrenda eta, puntuazioaren eta deialdiak duen aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera, laguntza ukatu zaienena.
- e) {0}<>90{>Proposamen bakoitzari emango zaion diru-laguntzaren zenbateko zehatza.
- f) {0}<>100{>Ebaluazioaren zehaztapena eta egiteko jarraitu diren irizpideak.

Erakunde Laguntzaileak egindako txostena Balorazio Batzordeari emango dio, Gizartekintza Batzorde Aholkulariko kideek osatutako batzordea.

Balorazio Batzordeak, Erakunde Laguntzaileak egindako txostena aztertu ondoren, Gobernu Batzarrari diru-laguntzak emateko proposamena helaraziko dio, hori baita ebazpena emateko organo eskuduna.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak, eskaera egin duten erakunde guztiei jakinaraziko zaiena, proposamen bakoitzak jaso duen puntuazioa eta emandako diru-laguntza adieraziko du.

Eskaera egin baina diru-laguntza jaso ez duten horiek itxaron zerrendan sartuko dira, hartara, emandako diru-laguntzaren bati ukoa ematen bazaio, itxaron zerrenda horretan dagoenari eskatu duen diru-laguntza eman dakioke baldin eta lehen ukatutako eskaera bati gutxienez erantzuteko behar adina kreditu badago.

Azkenean emango den diru-laguntzak "oroharreko prezio" izaera izango du, eta diruz lagundutako jarduera burutzeko beharrezkoa den finantzaketaren alde hori onuradunaren kontu geratzen dela ulertuko da. Emandako diru-laguntza ez bada izan eskatutako diru-laguntza osoa, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak aurrekontua berregiteko proposamena egin dezake eta emandako diru-laguntza horretara egokitu, baldin eta horrek ez badio funtsezko eran eragiten aurkeztutako proiektuaren helburuari eta emaitzei.

Onuradunek 15 eguneko epea izango dute diru-laguntza ukatzeko; epe hori, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatuko da. Onuradunek diru-laguntza onartu egin dutela ulertuko da aurreko pasartean adierazitako epe horretan berariazko ukorik eman ez badute.

## **Zortzigarrena: Ebazpena emateko eta jakinarazpenerako epeak.**

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea, dagokion deialdia GAOean argitara eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, sei hilekoa izango da.

## **Bederatzigarrena: Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.**

Diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak egiteko epea 2016ko ekainaren 17an amaituko da. Eskaerak -eta dokumentazio erantsia- deia egiten duen organoari zuzenduko dizkio onuradunak edo haren izenean diharduen pertsonak sinatuta.

Eskaerak PEGORAn entregatuko dira (Herritarren Zerbitzurako bulegoa, Udaletxea, beheko solairua edo etxabea, Untzaga plaza 1).

## **Hamargarrena: Eskaera egiteko aurkeztu behar diren dokumentuak.**

Diru-laguntza eskuratzeko eskaerak dokumentazio hau eduki behar du:

"ELKARTASUN BEKAK" diru-laguntzaren eskaera-orria, behar den moduan beteta.

a) NANaren kopia edo eskaera egiten duenaren balio bereko beste dokumenturen bat.

Frogagiria, eskaera egiten duenaren banku-kontuaren titularitatearena; beka eskatu duen pertsonaren identitatearekin bat etorri behar dena. Ondoko agiri hauetako edozein izango da baliokoa: Laburpen bankarioaren kopia; aurrezki-libretaren kopia; banketxeak egindako ziurtagiria edo diru-laguntzarako eskaera-orrian bertan dagoen "DIRU-LAGUNTZA KOBRATZEKO KONTU-ZENBAKIA" izeneko atalean banketxeak emandako zigilua.

b) Aipatu diren merituak egiaztatzeko dokumentazioa (hamabigarren atalean jasotzen direnak), aurkezten den dokumentazioan egiaztatuta geratu beharko direnak.

c) Parte hartuko den proiektuaren deskripzioa. Gutxienez, ondoko zehaztasun hauek eman behar dira: eskaera egin duenak zertan egingo duen lan, non, zenbat denboraz eta proiektuaren ardura duen GKEren izena.

Herrialdeko GGKEren edo proiektuaren ardura duen helmuga-herrialde hartako entitatearen karta, beka eskatzen duen pertsonak aurkeztu duen proiektuaren berri baduela eta parte-hartzea nahi duela adierazten.

## **Hamaikagarrena. Akatsak zuzentzea.**

Eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak bete egiten dituela eta, honen aurreko atalean aipatu den dokumentazioa ekarri egin dela egiaztatzea, espediente bideratu duen organoari dagokio; organo horrek, DLOren 23.5 artikulua araberak, zuzenketa egiteko agindua eman dezake. Hamar eguneko epe luzaezin gehienekoan eskatutako dokumentazioa ekarri ez edo akatsak zuzentzeko agindua eman eta akatsak zuzentzen ez dituztenak, eskabidean atzera egindakotzat hartuko dira.

## **Hamabigarrena. Diruz lagunduko den gehieneko zenbatekoa. Onartutako eskaerak baloratzeko irizpideak.**

Eskaera egiten duen pertsona bakoitzari emango zaion diru-laguntza ez da izango 1.500 euroko zenbatekotik gorakoa.

Proiektu bakoitza honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

1. EZAGUTZA ETA ESPERIENTZIA GARAPENERAKO LANKIDETZAN. 15 punturaino.
2. HELBURU SOZIALAK DITUZTEN EIBARKO ELKARTEETAKO EDO ELKARTEREN BATEKO KIDE IZATEA, BESTE BATZUETAKO. 15 punturaino.
3. PROIEKTUARI EGOKITUTAKO PRESTAKUNTZA ETA LANBIDE-PROFILA: 10 punturaino.
4. HIZKUNTZAREN EZAGUTZA ETA BESTE MERITU BATZUK, AIPATU ETA AGIRIZ FROGATUAK.

## **Hamairugarrena. Onuradunak, diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasota dirua zertan erabili duen justifikatzeko duen epea eta modua.**

Onuradunak, diru-laguntza emateko helburu hura bete egin duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifikatzeko, 8 hilabete ditu diru-laguntza eman zaiola dioen ebazpenetik zenbatuta.

Justifikatzeko modua JUSTIFIKAZIO KONTUA delakoaren bidez egingo da eta dokumentu hauek izango ditu:

a) Azken txosten bat lankidetzan jardun duenak egin dituen lanak deskribatzen.

b) Helmugako herrialdearen GKEren ziurtagiria, egonaldia edo denbora azaltzen (fetxa edo egun zehatzak behar dira)

c) Joan-etorrien (bidaia) gastuen zenbatekoa eta istripu eta gaixotasun polizak ez badituzte betetzen laguntzaren zenbateko osoa, jatorrizko fakturak edo faktura konpultsatuak aurkeztu behar dira joandako herrialdean egindako beste gastu horiek justifikatzeko (ostatua, mantenua, hango joan-etorriak).

### **Hamalagarrena: Onuradunak jaso duen diru-laguntzari eman behar dion zabalkundea.**

Diru-laguntza honen ezaugarriak nolakoak diren kontuan hartuta ez da honen zabalkunderik eskatzen.

### **Hamabosgarrena: Diru-laguntzaren ordainketa.**

Diru-laguntza zati bitan (2) ordainduko da:

- a) % 80 diru-laguntza eman ondoren. Aldez aurretik, abioi-txartelen ordainketari dagokion egiaztagiria edo horren balio bereko beste dokumenturen bat aurkeztu behar du, baita aseguru-polizaren kopia ere.
- b) Gainerako % 20a, justifikazio kontua aurkeztu eta egiaztatu ondoren.

### **Hamaseigarrena. Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.**

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabete dago berraztertze-errekurtsioa aurkezteko ebazpena eman zuen organoan, edo, bestela, bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke Administrazioako Auzien Donostiako Epaitegian, Atotxako Justizia Epaitegian (Teresa Kalkutakoaren plaza 1).

### **Hamazazpigarrena. Diru-laguntza jaso duenaren ekimenez diru-itzulketak egiteko baliabideak.**

Zein delarik ere arrazoia, diru-laguntza osoa edo diru-laguntzaren zati bat bere borondatez itzuli nahi duen onuradunak, udal Diruzaintzaren bulegoetan egingo du diru-itzulketa ordainketa-gutun bidez, agiri horretan, diru-sarrera egiten duenaren datuak eta ordainketa egiteko eman zen ebazpena identifikatzen utziko duten datuak jasoko dira. Ordainketa-gutun hori diru-laguntza eman zuen organoari helaraziko zaio justifikazio-epea amaitu baino lehen.

### **Hamazortzigarrena. Izaera pertsonaleko datuen babesa.**

Diru-laguntza eskaera aurkeztean, eskaera egiten duenak deklaritzen du deialdian ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarri hauek diotena goitik behera onartzen duela. Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea eta Eibarko Udalarenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horien erabilera udal kudeaketara soil-soilik mugatzeko. Hala ere, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan, beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga liezazkieke.